

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2019ko jarduera ekonomikoen gaineko zerga: borondatezko epean ordaintzeko aldia

Nik, Erika Letamendi Hurtado Arabako Donemiliagako Udaleko alkateak,

Jakinarazten dut: 2019ko azaroaren 22tik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2019ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea: 2019ko azaroaren 22tik abenduaren 24ra.

B) Betearazte aldia: 2019ko abenduaren 25etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Banketxeetan helbideraturako ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko tokiak:

– Kutxabanken bulegoak.

– Laboral Kutxaren bulegoak.

– “Internetez, Donemiliagako Udalaren web orrian: www.donemiliaga.eus/es/ayuntamiento (Nire ordainketa)”

III. Gomendioak

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak, eta helbide aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Donemiliagako Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoñana, 2019ko azaroaren 7a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO